

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5184

165/2016 DEKRETUA, azaroaren 29koa, zeinen bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailtako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua (behin-behineko langileak).

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 14. artikularen arabera, lanpostuen zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak barne hartu beharko dituzte, eta funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordeak diren bereizi. Xedapen hori betetzeko, 44/2007 Dekretua argitaratu zen (44/2007 Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailtako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzekoa). Dekretu horrek onartu zituen, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, azken hori, 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak emandako epaiaren bitartez, deuseztatu egin baitzen. Ordutik hainbat aldiz aldatu da aipatu dekretua, eta, egun, apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartutako behin-behineko langileen lanpostuen zerrenda da indarrean.

Lanpostuen zerrendak dira administrazioako barne-egiturak antolatzeko baliabideak. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko ebazpena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakian aurreikusitakoa betetzeko (erabaki horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileen erregimen juridikoaren arautze orokorra eta estrukturalari buruzko proposamena), Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluari dagokionez.

Lanpostuen zerrenda honek zehazten ditu haien funtsezko ezaugarriak, haiek betetzeko eskatutako eskakizunak eta postuen ordainsari-erregimenari dagozkion beharrezko zehaztapenak, 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikularen arabera (78/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrendak arautzekoa), urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuak emandako idazkeran, zeinak, batetik, erantzuten baitio 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan aurreikusitakoari eta, bestetik, bateratzen baititu uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluko eta Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakiko aurreikuspenak.

Horren ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko azaroaren 29an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean agertzen dira, eta apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartu ziren.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, Dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 29an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

2016ko abenduaren 5a, astelehena

ERANSKINA, AZAROAREN 29KO 165/2016 DEKRETUARENA
ANEXO AL DECRETO 165/2016, DE 29 DE NOVIEMBRE

Sortu:

KODEA	DOTAZIOA	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	H.E.	ORDAINSARIA	LAN. MOT.	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5221	13	SAILBUJUAREN IDAZKARIA	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	2	20	N	EP	2
5223	9	AHOLKULARIA KOMUNIKAZIO GAIE TAN	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	3	Zuzendari	N	EP	%100
KODEA	DOTAZIOA	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	H.E.	ORDAINSARIA	LAN. MOT.	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5221	14	SAILBUJUAREN IDAZKARIA	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	2	20	N	EP	2
5223	10	AHOLKULARIA KOMUNIKAZIO GAIE TAN	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	3	Zuzendari	N	EP	%100
KODEA	DOTAZIOA	LANPOSTUAREN IZENA	SAILA	H.E.	ORDAINSARIA	LAN. MOT.	SAILKAPENA	DEDIKAZIO ERREGIMENA
5221	15	SAILBUJUAREN IDAZKARIA	LANA ETA JUSTIZIA	2	20	N	EP	2
5223	11	AHOLKULARIA KOMUNIKAZIO GAIE TAN	LANA ETA JUSTIZIA	3	Zuzendari	N	EP	%100

Creación:

COD.	DOTAZIÓN	DENOMINACIÓN DEL PUESTO	DEPARTAMENTO	P.L.	RETRIBUCIÓN	TIP. PUE.	CLASIFICACIÓN	RÉGIMEN DEDICACIÓN
5221	13	SECRETARIO/A DE CONSEJERO/A	TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO	2	20	N	ES	2
5223	9	ASESOR/A EN COMUNICACIONES	TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO	3	Director	N	ES	100%
COD.	DOTAZIÓN	DENOMINACIÓN DEL PUESTO	DEPARTAMENTO	P.L.	RETRIBUCIÓN	TIP. PUE.	CLASIFICACIÓN	RÉGIMEN DEDICACIÓN
5221	14	SECRETARIO/A DE CONSEJERO/A	CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA	2	20	N	ES	2
5223	10	ASESOR/A EN COMUNICACIONES	CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA	3	Director	N	ES	100%
COD.	DOTAZIÓN	DENOMINACIÓN DEL PUESTO	DEPARTAMENTO	P.L.	RETRIBUCIÓN	TIP. PUE.	CLASIFICACIÓN	RÉGIMEN DEDICACIÓN
5221	15	SECRETARIO/A DE CONSEJERO/A	TRABAJO Y JUSTICIA	2	20	N	ES	2
5223	11	ASESOR/A EN COMUNICACIONES	TRABAJO Y JUSTICIA	3	Director	N	ES	100%

GAKOAK

SAILKAPENAK

DEDIKAZIO ERREGIMENA

Lanpostu mota: N Normalizatua EP: Egiturako postua

2: Deditazio berezia (%20)
100%: Jornada completa

CLAVES

CLASIFICACIÓN

RÉGIMEN DE DEDICACIÓN

Tipo de puesto: N Normalizado ES: Puesto Estructural

2: Deditación especial (20%)
%100: Lanaldi osoa